


FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Esperientziari dagokionez, segurtasun aplikazio bat sortu nahi genuen duela urte bat. Baina ez zitzaigun ondo atera eta smartwatch izeneko produktuak garai honetan arrakasta handia izan dutenez, pentsatu genuen halako formatu jarraitu ahal genuela.



Horregatik, gure aurreko zerbitzua errentagarria ez zenez izan, egindako akatsak zuzendu ditugu. Hasteko, gure akatsa nagusia gure produktua banatzeko enpresa fidagarria ez kontratatzea izan zen. Gainera, publizitatea ez genuen ondo planteatu, beraz, enpresa gutxi lan egin nahi zuten gurekin. Arazo hauek SaFirst-ekin konpondu ditugu.

Baliabide-ekonomikoei dagokienez, gure ideia duela denbora asko planteatu genuenez, aurrezten hasi ginen, eta taldeko kide bakoitzak zifra zehatz bat aurreztu zuen proiektua aurrera egin dezan. Era berean, sponsor batzuk lortu genituen publizitateari esker, hala nola, El Regato Ikastetxea edo Shipius. Gainera, azken honek gure produktua banatzen duen enpresa da.

Hau alde batera utzita, baliabide fisikoak kontuan izanda, denda baten bidez saldu nahi ditugu gure eskumuturrak. Horiek ekoizteko aurretik aipatu ditugun enpresetatik lortuko ditugu beharrezkoak diren elementuak, geolokalizatzailek eta eskumuturrekoak, besteak beste.